

Hauxe da segur aski
lehiakortasunaren izenean, EBko
herrialdetan ikusiko dugun egoera
TTIP delakoa zinatuko balitz.

STOP TTIP
CETA
TISA **P**

 **LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA**
www.cgt-lkn.org www.rojoynegro.info



**TTIP AK ZURE ETORKIZUNA
SUNTSITZEN DU ETA
MEREKANTZIA BIHURTZEN
ZAITU**

Laborantza, zerbitzu
publikoak, lan-eskubideak,
energia, medikuntza, osasuna,
finantzen erregularizazioa,
ingurugiroa, kultura eta abar...
multinazionalen eskuetan
utziko dira.

Banatuak, babesik gabe eta
greba eskubiderik gabe.



Lan-eskubideak
eta gizarte
politika birmoldatzen
transnazionalen mesedetan

MUGI ZAITEZ

CONFEDERACIÓN
GENERAL
DEL TRÁBAJO
WWW.CGT-LKN.ORG
WWW.ROJOYNEGRO.INFO



Zer da TTIP?

EE.BBen eta E.B.aren arteko Inbertsio eta Merkataritzarako Itun Transatlantikoa (TTIP ingelerazko siglak), hiritargoak deus jakin gabe, munduko komertzio askeko zonalderik handiena sortzeko, multinazionalak eta elite politikoak negoziatzen ari diren merkataritza askerako ituna da. Bere benetako helburua lan eta gizarte eskubideak, ingurugiro arauak eta abar.. desregularizatzea da. **Ala nola zerbitzu publikoak pribatizatu: osasungintza, hezkuntza, ura, garraioak, hondakinen gestioa...** irabazkinak etengabe handitzeko asmoz.

Horretarako, enpresen inbertsioak garantizatuak izan behar dira, estatuen legedien gainetik. Hauek, enpresak indemnitzatu beharko dituzte, irabazkinak aurreikusitakoak ez baldin ba dira. Horretarako, Inbersore eta Estatuen arteko Gatazkak Konpontzeko Instrumentua (ISDS) eratzen da. Arbitraiarako tribunalak dira eta ez daude estatuetako legedi arruntaren menpe.

Honen antzeko beste hitzarmenekin gertatu den bezala, Kanada, Mexiko eta Eguenen arteko Iparramerikako Merkataritza Librerako Itunarekin adibidez, gizartearen eta langileen eskubideekin bukatzeko beste saiakera bat izango da, mozketa prozesuak, pribatizazioak eta kapital mugimenduak areagotuz, kapitalaren boterea handitzea besterik ez dakar. Ikuspuntu honetatik, zinatuko balitz ondorioak **oso negatiboak izango dira lan eta gizarte eskubideentzat, enplegua, nekazaritza, elikadura eta ingurugiroarentzat.**

Zer suposatuko du langileentzat?

Enpleguarentzako ondorioak:

TTIParen zinatzearen aldeko txostenen aburuz, bi milioi lanpostu sortuko lirateke EEUU.tan eta EB.ean, eta 2027. urtea bitartean, EBko Barne Produktu Gordinaren (BPG) 1% eta 0,5% arteko hazkundera ekarriko lukeela diote, baina Europako Komisioak berak hazkundera 0,1%eraino murrizten du. Haragiaren industrian, ongarrien, azukrearen, bioetanolaren, metala eta nekazaritza sektoretan lanpostuak galduko lirateke, eta nekazaritza eta tokiko industria suntsituko lirateke.

Garapenerako Nazio Batuen Programak (PNUD) erabiltzen duen ikerketa modelo erabiliz, Tuftseko unibertsitateak egindako txostenaren arabera, EBean 600.000 lanpostu galduko lirateke, lanaren errentak BPGan duten eragina murriztuko litzateke eta dirusarrera publikoak galduko lirateke.

TTIParen zinatzeak ekarriko lukeen balizko enplegu sorrera, Iparramerikako Merkataritza Librerako Itunetik (NAFTA) atera daitezken ondorioek ezeztatzen dute. 1994. urtean zinatua izan zen eta 20 milioi lanpostu eratuko zituela

aurreikusten zen. Ostera, milioi bat lanpostu galdu eta artoaren azpisektore mexikarra birrindu zen EEBBetako arto transgenikoaren inbasioagatik.

Lan-baldintzen gaineko eragina

Lan-baldintzei dagokionez, erregularizazioaren “harmonizazioa” kontutan izan behar dugu, beherantzako berdinketa. EBko **lan-baldintzak EEBBetakoekin parekatuko dira.**

EBBetan, lan eskubideak hutsaren hurrengoa dira eta EBean momentuz garantizatuak daude, nahiz eta formalki bederen ez egon armonizatuak eta zenbat eta gehiagotan konkulkatzen diren.

EEBBek ez ditu zinatu negoziaketa kolektiboaren eta antolakuntza eta asoziazioaren inguruko Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak. Hala nola gizon eta emakumeen arteko diru-sarien berdintasunaren gainekoak, familia ardurak dituzten langileen gainekoak, etxeko lanenak edo eta amatasunaren gainekoak (baimenak, prestazioak, edoskitze eskubidea erregulatzen dutenak besteak beste)...

Ez du ezta ere emakumearenganako diskriminazio modu guztiekin bukatzeko Konbenioa baieztatu (CEDAW ingelerazko siglak), 1979ko abenduaren 18an Nazio Batuen Batzarrean honetsia, eta 1981eko irailaren 3an indarrean jarri zena; edo Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena, batzar berberak onartua 2200 A (XXI) 1966ko abenduaren 16an eta indarrean jarri zena 1976ko urtarrilaren 3an.

Gainera, Batasuneko Estatuen artean inbersoreak erakartzeko lehia handia dago eta horretarako hauetako 24 estatuetan lan-sariak, segurtasun eta lan-osasun baldintzak murriztu dituzte. **Negoziaketa kolektiboa eta askatasun sindikala ez daude aintzat hartuta, beraz greba eskubidea eta askatasun sindikala desagerrarazi dituzte.**

Lanpostuak eman ordez, lan egiteko “errestasunak”ematen dira. Derrigorrez edozein lanpostu onartu beharri “Right to work” (Lan egiteko eskubidea) deitu diote. Lan-sari minimoa, segurtasuna edo osasuna daude finkatuak.

Multinazional batzuetako langileak, Wal-Mart edo McDonaldsekoak adibidez, bizitzeko lan-sari txikiegiak jasotzen dituzte, eta ondorioz, gobernu estatubatuarra txiroen artean banatzen dituen elikadura bonoak eskatu behar dituzte.